



3 INGURUGIROA

Aire Garbia plataforma eratu du herritar talde batek

Zubietako errauste plantaren proiektua berriro martxan jarztearen asmoen aurrean, herritar talde batek Aire Garbia plataforma sortu du hau gaitzesteko. Asteartean egin zen aurkezpena Manuel Lekuonan eta sentsibilizazio kanpaina abian jarriko dutela iragarri zuten. Horretaz gain, azaroaren 21ean herrian manifestazioa egingo da.



5 BERTSOLARITZA

Labaka eta Etxeberria aurrez aurre Arrieskalletan

Azaroaren 6an, ostirala, 21:00etan Arrieskalleta elkartean bertso afaria antolatu dute. Honetan arituko dira Ane Labaka eta Patxi Etxeberria bertsoan eta Mailu Arrutik gaiak jarriko dizkie bere bakarrizketa eta kontu xelebreekin. Bi bertsolari belaualdien arteko erronkaz gozatu ahal izango dute bertaraten diren herritarrek. Txartelak salgai daude 20 eurotan Jalgin.

'Hippy azoka' herrian asteburuan 34 elikadura eta artisautza postu egongo dira ikusgai Okendon

Hainbat urte egingo ditu atzera gaur Lasarte-Oriak, 70. eta 80. hamarkadetan girotutako 'Hippy azoka' inauguratzearekin batera. Udaleko Kultura sailak eta Bacan enpresak antolatu dute elkarlanean, eta igande iluntzera arte hamaika ekintza prestatu dituzte. Era berean, zenbait probintziatik elikadura zein artisautza alorretako 34 postu jarriko dituzte Okendo plazan, eta garaiko pelikula ospetsuenetako bi proiektatuko dituzte: 'ET' eta 'Los Goonies', gaur eta bihar iluntzean, plazan bertan.



Antolatzaileek gaurtik igande iluntzera bitarteko azokan parte hartzeri gonbidatu zituzten herritarrek.

Gaur arratsaldeko bostetan denboran atzera egingo du Lasarte-Oriak, 'Hippy azoka' delakoa inauguratzearekin batera. Okendo plazan egingo da garai horietan girotutako ekitaldia, asteburu osoan zehar. Udaleko Kultura sailak antolatu du azoka, Bacan enpresarekin elkarlanean. Aurreko urteetan ere ospatu izan da, baina Erdi Aroan girotu ordez, 70. eta 80. hamarkadak gogoratu dituzte aurten.

Adin guztientzako azoka izango da asteburu honetako. Haurrentzako prestatu dituzten ekitaldien artean nabarmentzekoak dira Charly eta Nacho magoen emanaldiak, globoflexia tailerra, aipatutako bi hamarkadetan girotutako 'Flower Power' tailerrak edota haur jolas tradizionalak, duela 20-30 urtetakoak. "Gaur egungo belaunaldi gazteei erakutsi

nahi diegu zeinen ondo pasatzen genuen jolasean, bideojoko zein mugikorrik gabe", esan zuen Jorge Basterretxea Bacan enpresako kideak.

Helduek ere izango dute nola dibertitu gaur hasiko den azokan. 'Power' karaokean garaiko abesti ezagunenak kantatuko dituzte, eta ostiral zein larunbat iluntzean (orduak zehazteke dituzte oraindik) bi pelikula mitiko proiektatuko dituzte Okendon bertan: 'ET' eta 'Los Goonies'.

34 postu Okendon

Horrez gain, probintzia ugariatik etorritako 34 artisautza postu etorriko dira azokara asteburuan. Herritarrek, hortaz, aukera paregabea edukiko dute hainbat produktu ikusi eta erosteko. Horietako batzuk elikaduraren alorrekoak izango dira: kontserbak, gazta, likoreak eta Galiziako olagarroa, besteak beste. Gai-

nontzekoak berriz, era askotako osagarriak (erlojuak, lanparak, bitxiak, etab.) edota estetika alorrekoak (ukenduak, depilazioa...).

Okendo plazan edukiko dituzte ikusgai postuak herritarrek, eta horien artean ibili bitartean 70. zein 80. hamarkadako musika entzungo dute, antolatzaileek hori baliatuko baitute azoka girotzeko asteburuan zehar.

Jesus Zaballos alkateak azokara hurbiltzera gonbidatu ditu herritarrek: "Espero dugu lasarteoriarrek antolatutako ekintzetan parte hartuz garai horiek gogoratuko dituztela".

Egitarau zabala

Esan bezala, gaur arratsaldeko bostetan inauguratuko da Hippy azoka. 'Charlie showman' magoak emanaldia eskainiko du eta ordu horretan irekiko dira ere aipatutako 34 postuak. Bestalde, gazte-

txoenek globoflexia tailerren eta paraxutetan oinarritutako jokoetan parte hartu ahalgo dute. Iluntzean, 'ET' pelikula proiektatuko dute Okendon.

11:00etan zabalduko dute azoka bihar, eta handik ordubetara hasiko dira haurrentzat prestatutako hainbat joko. Arratsaldean, garaiko abesti ezagunenak kantatu ahalgo dira 'Power' karaokean, 18:00etan, eta 'Los Goonies' filma ikusi iluntzean.

Etzi, 12:00etan 'Flower Power' photocall-a hasiko da, eta garaiko hainbat produktu egiteko tailerretan parte hartu: 'Maitasuna eta bakea' txapak, 70. eta 80. hamarkadetako giltzatak, eta abar. Arratsaldeko seietan karaokea egongo da berriro ere.

Hippy azokako hiru egunetan zehar Nacho magoak trikimailu desberdinak egingo ditu Okendo plazan, kartak erabiliz horretarako.

EUSKAL JANTZI TRADIZIONALAK EGITEN IKASI NAHI DUZU?

Oraindik garaiz zaude! Ttakun Kultur Elkartek, **azaroan** ere Euskal Jantzi tradizionalak egiteko **ikastaroa** antolatu du. Izena emateko edo informazio gehiago eskuratzeko, bulegotik pasa zaitezke, **943 36 68 58** zenbakira deitu edota **kultura@ttakun.com** helbidera datzi.

Neure kabuz



Gorka Lasas

Oraingoan ere ez

Ongi gosaltzea gauza garrantzitsua da, baina azken urteotan bezperako ogiarekin zopak egin eta katilukada bat esne hartzen dut. Bazkaldu, berriz, arroz ez edo pastaz eginiko plater bakarra. Eta afaltzeko, tortillatxo bat, edo urdaiazpiko egosia inongo lagungarri edo hornidurarik gabe. Edateko, tristura hau irensten laguntzen didan iturriko ura.

Hozkailuko atea irekitzen dudana bakoitzean bertako hustasunak penaz betetzen du nire barnea. Egia esan, eguneko otorduak egiteko adina jaki bakarrik dago, doi-doi. Etxerako erosketa saskia betetzea oso garestia baita, eta betetzea ezinezkoa, noski.

Ohitura ederra nuen, auzoko tabernan kafe bat hartuz, ogiarekin batera erositako egunkaria irakurtzekoa. Orain, berriz, kafea hartzeari eta egunkaria erosteari utzi diot.

Irratirik eta telebistatik ez dut etxean; bigarren eskuko azoka batean saldu nituen. Egon-gelatik sukaldera edo komunera ilunpetan noa ahalik eta argi-ondar gutxien gastatzearen; eta dutxatu, berriz, astean bi aldiz ur hotzez.

Bi kamiseta, bi alkandora eta bi jertse jantzita egiten diot neguari aurre. Honekin guztiarekin nahikoa ez badut, ohean sartu eta hantxe igarotzen ditut orduak hurrengo goizean egunak argitu arte.


Bi urte dira jada lanik gabe geratu nintzela, eta bizitzan denak egin du gora, nire hileroko diru sarrerak izan ezik. Bihar hil bukaera da, kontuak egiteko garaia; baina kontuak ondotoxoa atereak ditut dagoeneko; oraingoan ere ez naiz iritsiko.

Zorion agurrak



Nadia, Ibon eta Aitor

Zorionak zuen hamargarren urtebetetzean!!! Muxu pila aita, aitona-amona eta osaben partetik.



Haizea

Zorionak etxekoen partez. Ondo pasa zure eguna!!!



Elaia

Zorionak sorgintxo! Dagoeneko 4 gure bizitzak alaitzen. Marrubizko muxuak familia guztiaren partez.



Nora

Zorionak maitia! Oso ongi ospatu 14 urte eder horiek!!!



Uxue

Zorionak guraso, aitona-amona eta izeba osaben partetik! Zortzi muxu handi!!!



Maialen

Zorionak Maialen familia guztiaren partetik. Asko maite zaitugu!



Nahuel

Zorionak Puma! Oso ondo pasa zure egunean! Muxuak familia osoaren partetik!

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo txintxarri.eus web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Azoka txikia

Higiezinen Eskaintza

- Autokarabana batentzat egokituriko garajea saltzen da. 56 metro karratu. 630 752 858.
- Garaje marra berria alokatzen da topo geltokiaren parean, 11m2 ditu. 687 271 288

Lan-eskaria

- Gizona eskaintzen da eskutitzak edo publizitate banatzeko. 943 364 527
- Tabernan zerbitzari lanetan aritzeko eskaintzen naiz. Esperientzia daukat. Urko, 622 219 175
- Garbiketa edo zaintza lana asteburuetan, gau eta arratsaldeak. Berehala hasteko prest. 639 740 900
- Garbiketa edo zaintza lan egiteko prest interna zein externa moduan eta asteburuetan.

tan. Berehala hasteko pret. Erreferentziak ditut. 639 089 138

- Garbiketarako, umeak edo agureak zaintzeko prest nago. Edozein ordutegi (interna izan ezik). Azucena. 669 931 026

Bestelakoak

- Irakaslea eskaintzen da klase partikularrak emateko Lehen Hezkuntza eta DBH-ko lehen zikloan. Maialen: 626 652 224
- Kantu modernoko irakasle baten bila nabil: nirekin harremanetan jartzeko idatzi email honetara: mikelgnieto@gmail.com
- Euskara, ingelesa edo latina irakasten dut, zure etxean bertan. Eskolak indartzeko ere prest. Ekonomikoa. 600 766 068.

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Liher Arregi Irizar, urriaren 22an.
- Leyla Rahiwa Giraldes, urriaren 20an.
- Maddi De Dios Legarreta, urriaren 19an.
- Intza Azkarate Igoa, urriaren 16an.
- Marco Delgado Negueruela, urriaren 11n.



Heriotzak

- Jose Antonio Rezola, urriaren 28an, 75 urte zituela.
- Jose M^a Zabalegui Saizar, urriaren 26an, 82 urte zituela.
- Bakartxo Agirrezabalaga Deba, urriaren 22an, 79 urte zituela.
- Feli Otaño Otaegi, urriaren 19an, 67 urte zituela.
- Tomas Fernandez Alvarez, urriaren 17an, 88 urte zituela.
- Jose Antonio Ormazabal Sasiain, urriaren 17an, 77 urte zituela.
- Jose M^a Andreu Cazalilla, urriaren 15an, 87 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 30	Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Larunbata, 31	Gandarias-Urbe, l. de Loyola 9	943 019521
Igandea, 01	Gandarias-Urbe, l. de Loyola 9	943 019521
Astelehena, 02	Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Astearte, 03	Gandarias-Urbe, l. de Loyola 9	943 019521
Asteazkena, 04	Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Osteguna, 05	De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151

GAUEKOA: 22:00-09:00, egunero
Echeveste Elozegi, Elkano 9
Hernani, Tel.: 943 552087

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA UDALA

Laguntzailea



Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557
Legezko gordailua:
SS513/93
ISSN: 1134-0053
Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:
Maider Azurmendi, Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez.
txintxarri@txintxarri.info
Publizitatea: Arantxi Zulaika
publizitatea@ttakun.com
Laguntzaileak:
Unai Muñoa, Gorka Lasas, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Maider Segurola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Edu Galardi
Informatikoa:
Xabier Amadoz

ERRAUSTEGIA

Aire Garbia plataforma martxan

Zubietako erraustegiaren aurkako mozioa aurkeztu eta manifestazioa antolatu du

Lasarte-Oriako herritar talde batek Aire Garbia plataforma osatu du. Bere aurkezpenean Zubietako errauste plantaren proiektua berriro martxan jartzearen asmoak gure herrian sortzen duen ezinegona agertu zuen eta hurrengo asteetan egingo den sentsibilizazio kanpainako ekintzak azaldu zituzten plataformako kideek.

TXINTXARRI

Zubietako erraustegiaren aurkako Aire Garbia plataforma aurkeztu zen astearte arratsaldean Manuel Lekuona kultur etxean.

Hainbat herritarrek osatutako plataforma da Aire Garbia. Herritar talde honek ez du ontzat jotzen Foru Aldundiko arduradun berriek errauste plantaren proiektua berriro mahai gainean jarri nahi izatea eta honen aurka lan egingo du.

Herritarren ezinegona azpimarratu zuten plataformako kideek aurkezpen agerraldian, "beste herri batzuetan nahi ez dutena ere ez dugu nahi hemen".

Diego Egizabal eta Maider Izagirrenen ahotsean herritar

batek idatzitako eskutitza irakurri zen agerraldian. Honen bidez, proiektuak sortzen dituen beldurrak azalarazi zituen plataformak.

Batez ere, proiektuaren bideragarritasuna bermatzeko "legezko" zer egingo ote duten galdetzen dute. "Legezkoa izango da kutsadura indizea... Legezkoa izango dira, beraz, kutsadura horrek sortuko dituen gaixotasunak eta horien inzidentziak ere... eta tragedia gertatzen denean, legeak agintzen ziena bete dela esango dute, Aldundiak eta Aldundian proiektuaren alde egin duten gizon-emakume horiek beraiek ez dutela erantzukizunik, dena legearen barruan egin zela, ezinezkoa zela natura kontrolatzea, ezin zela aurreikusi, tragedia saihestezina zela... inpunita-



Aire Garbia plataformako kideek asteartean egin zuten aurkezpen ekitaldia.

tea ere legezkoa egingo dute".

Hau dela eta, bi aukeraren artean hautatu behar delakoan da sortu berri den plataforma: aire zikinari aurre egiteko mozorroa eta Lore-errota. Taldeak argi utzi zuen bere hautua prentsaurrekoan, "argi bezain garbia da, eman Lore-errota! Zubietako erraustegirik ez!"

Sentsibilizazio kanpaina

Plataformako kideek herritarrek haiekin bat egin dezaten sentsibilizazio kanpaina bat iragarri dute hurrengo asteetarako. "Batu zure ahotsa gurekin Aire Garbia ekimenean. Ozen esan dezagun kezkatuta gaudela eta ez dugula legezko egin nahi herritarrentzat arrisku egoera bat", adierazi zuten.

Oraingoz bi ekintza eman dituzte jakitera. Batetik, Lasarte-Oriako Udalean mozio bat aurkeztuko dute, non errauste plantaren proiektua bertan behera uztea eskatzen zaion Foru Aldundi, Mankomunitate eta Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoari.

Bestetik, azaroaren 21ean manifestazioa egingo dute herrian.

II. BAI Topaketak azaroan

Elkarbizitza, herrigintza eta autogintza eta hondakinen kudeaketa jorratuko dira II. BAI Topaketetan, azaroaren 12, 19 eta 26an, arratsaldeko 18:30etik 20:30era, Villa Mirentxuko hitzaldi aretoan.

1979 urtetik 2013 urtea bitarteko zinegotzi abertza-leek osatutako BAI plataformak antolatutako hitzaldi sorta honek bere bigarren edizioa du eta asteazkenean Boris Nogales zinegotzi ohiak aurkeztu zuen egitaraua.

Topaketa hauen helburuak agerraldian azaldu moduan bi dira. "Bizikidetzaren berritu beharrean: batetik, etxeko biktimak oroitzea eta bakea egitea legokiguke indarkeriek ekarri duten menpekotasun garratz horretatik askatzeko. Ba dago zer hobetzea bizikidetasunaren eremu horretan, gure jatorriko aniztasun aberatsa kamustu gabe. Beste aldetik, Lasarte-Oriako ekonomia-egoera txarra da. 1.500etik gorako langabetuen aurrean, lidergo kooperatiboa behar dugu. Udala, gizarte eragile eta bertako ekintzai-



Boris Nogalesek II. BAI Topaketan aurkezpena egin zuen, Mariasun Izeta lagun zuela.

leak batera jartzea helburu duen ekinbide indartsua".

Hiru mintegi

Gai hauei eta Zubietan jartzea zen erraustegiari buruzko gogoeta egin nahian hiru mintegi antolatu dituzte.

Lehenengo saioan, Maribel Vaquero, Foru Aldundiko Bizikidetzaren eta Giza Eskubiaren Zuzendari Nagusia elkarbizitzari buruz mintzatuko da.

Azaroaren 19an, aldiz, 'Abertzaletasuna XXI. mendean' gaia jorratuko du Xabier

Barandiaran soziologo eta politika aholkulariak.

Eta azkenik, Javier Ansorena Minerrek Gipuzkoako hondakinen kudeaketaren gaia landuko du azaroaren 26an.

Abertzaletasunaren hitzaldia izan ezik, besteak gazteleeraz izango direla azpimarratu zen mintegien aurkezpenean. Hala ere, galdera eta erreguak norberak nahi duen hizkuntzan egiteko aukera izango dela adierazi zuten.

Plataformako kideek herritarrek gonbidatzen diztuzte hauetan parte hartzera.

AMARAUN KLUBA

Sentimenduak ipuinen bidez lantzen

Amaraun Klubeko lagunek, aurten ere, "Sentimenduen bidaia ipuinetan barrea..." saioak antolatuko ditu. Lehenengoa azaroaren 9an, osteguna, 18:00etatik aurrera egingo da Amaraun Ludotekan.

Saio hauek HH3 eta HH4 mailako haurrei zuzendutako dira eta ipuinen irakurketa, asmakizun, abesti eta poesien bitartez sentimenduak landuko dira haurrekin. Lehen saioan haserrea jorratuko da. Saioak ordu bete iraungo du.

DOMU SANTU EGUNA

Manttangorri zerbitzu berezia hilerrira

Domu Santu Eguna dela eta, hiribus zerbitzu berezia izango da Illarraltzueta hilerriraino, urriaren 31an eta azaroaren 1ean.

Urriaren 31ko zerbitzuak 16:00etan, 17:00etan eta 18:00etan aterako dira, Antxisu Baitararik. Azaroaren 1ean, orduro izango da hilerrirainoko zerbitzua, 9:00etatik 13:00etara, Antxisu Baitararik. Hilerritik itzultzeko zerbitzuak, berriz, irteera bakoitza baino ordu erdi geroago izango dira.

AMARAUN KLUBA

HH2-ko haurrentzako tailerra

2013. urtean jaiotako haurrek eskulanak, masajeak eta eskujolasen bitartez gorputza ezagutu eta sentitzeko aukera dute Amaraun Klubak antolatutako tailerrean.

Azaroaren 2an, 17:15etik 18:15era astelehena izango da Zumaburu eskolako psikomotrizitate gelan eta txikiek heldu baten laguntza beharko dute saion zehar.

Honetan parte hartzeko alde aurretik izena eman behar da, Ttakuneko bulegoan, 943 371 448 zenbakian edo aisia@ttakun.com helbide elektronikoan.

Azarorako kultur agenda oparoa

Zinea, musika eta antzerki eskaintza zabala izango da Manuel Lekuonan

Azaroan zehar denetariko eskaintza izango da Manuel Lekuonan. Zinea, antzerkia, musika eta erakusketak izango dituzte herritarrak aukeran. Tartean izango dira Lan eta Lan antzerki taldearen 18 urteak ospatzeko ekintza bereziak, XII. Akordeoi jaialdia edota Jalgune elkartearen urteko jaialdia. Udal ordezkariak aspertzeko tarterik ez dela izango nabarmendu dute.

TXINTXARRI

Atzo Manuel Lekuonan egindako agerraldian aurkeztu zuten udal ordezkari zein kultura saileko arduradunek azaroan zehar herrian egongo den kultur agenda. Maite Iglesias Kultura zinegotziak nabarmendu zuen "egitarau oparoa prestatu dugu, anitza eta adin tarte guztiari zuzendutakoa. Ez da herrian aspertzeko tarterik izango".

Horrela izanda, zine saioez gain, musika eta antzerkiak hartuko du bere lekua hilabete zehar.

Zinea

Asteburu honetan, igandean haurrentzako 'Pinocho y su amiga Coco' filma izango da 17:00etan. Jarraian, helduei zuzenduta, 'El Desconocido' 19:30ean.

Azaroaren 6an, Okendo Zinema Taldearen zine forumean 'Amama' filma ikusi ahal da 22:00etan. Hau euskaraz eskainiko da gaztelaraz azpigitulatu. Azaroaren 8an haurrentzat 17:00etan 'Minusculos' emango da eta

helduen saioan 'Amama' ikusteko aukera izango da. 15ean, euskaraz haurrentzako 'Asterix, Jaingoikoen egoitza' eskainiko da eta helduen saioan berriz, 20:00etan 'Everest'.

20ko zine forumean 'Irrational Man' ikusiko da 22:00etan eta 22an aukera izango da hau berriz ikusteko igandeko ohiko saioan 19:30ean. Haurrek 22an 'Ups! ¿Donde está Noé?' ikusi ahal da 17:00etan. Azaroan azken igandean, 'Capitan dientes de sable' pelikula izango da haurren saioan eta helduenean 19:30ean 'Marte (The Marthian)'.

Antzerkia

Herriko Lan eta Lan antzerki taldearen 18. urteurrena dela eta, ekintza sorta berezia antolatu da azaroko lehenengo asteetan. Astelehenean bertan, taldeak erabilitako jantzi eta atrezzoarekin osatutako erakusketa zabalduko da Mercero aretoan. 18:30ean izango da irekiera ekitaldia eta antzerki taldekoek poema errezitaldia eskainiko dute. Asteazkenean, azaroak 4,



Agerraldia egin zuten atzo Manuel Lekuonan azaroko eskaintza kulturala aurkezteko.

kafe-antzerkia egingo dute Merceron 19:30ean. Taldeak 'El viejo Celoso' lana ere antzeztuko du ostegunean, azaroaren 5ean, 20:00etan, Manuel Lekuonan. Sarrera doakoa izango da. Ekintza egitaraua borobiltzeko, 7an, larunbata 19:30ean, "El cianuro ¿solo o con leche" lanaren irakurketa dramatizatu egingo dute Lan eta Lan-eko kideek. Sarrera 3 eurokoa izango da.

Bestalde, Donostiako Teatro Estudiok 50 urte betetzen ditu eta Danok Kideren eskutik herrian bi lan taularatuko dituzte, azaroaren 13an 19:30ean 'Ensayo para siete' eta 26an, ordu berean, 'Una comedia española' bi saiotara sarrera doan izango da. Hilabete honetan haurrentzako

antzerkia ere izango da. Kasu honetan Gorakada taldearen 'Moby Dick' izango da azaroaren 21ean. Sarrera 3,80 eurokoa izango da.

27an genero indarkeriaren aurkako antzerkia izango da Makelur antzerki taldearen eskutik '9 mosaicos infinitos' lanarekin. Sarrera 3 eurokoa izango da.

Musika

Danak Kideren Musika Topaketan hasiera izango da azaroaren 6an. Lehenengo kontzertuak musika barrokoa izango du ardatz 'Entre donaires y burlas' 19:30ean komentuan doan.

Azaroaren 14an XII. Akordeoi Jaialdia izango da. Honetan arituko dira Zero Sette, Eric Bouvelle eta Mirari

Etxeberría besteak beste. 19:00etan hasiko da eta sarrera 3 eurokoa izango da. Musika eskolako ikasleek Santa Zezilia kontzertua eskainiko dute azaroaren 19an 19:00etan eta 21ean, 'Una tarde con Puccini' operaren bertsio digitalaz gozatu ahal da.

Gainerakoan, bigarren erakusketa bat izango da azaroaren 17tik 26ra Mercero gunean, 'El sexo oculto del dinero' eta honen baitan 'Larre Motzean' dokumentala emango da.

Bi ipuin kontaketa programatu dira 18 eta 25ean haur liburutegian eta azkenik, azaroaren 28an, Jalgune elkarteak bere urteroko jaialdi koloretsua egingo du Manuel Lekuonan 18:30ean.

Eskoletan kirola sustatuz

Lasarte-Oriako Udalak eta herriko ikastetxeetako Guraso elkarteek eskola kirolaren jardunari buruzko hitzarmena sinatu zuten astelehenean.

Hitzarmen honek berrikuntza bat dakar, Udalaren eta ikastetxeen artean egitura berri bat sortuko da.

Honi esker, ikastetxe bakoitzeko kirol-teknikariekin lan egingo duen kirol-koordinatzaile baten bidez, ikastetxean kirolean jarduteko egitura espezifiko bati eustea bermatzen da.

Ikastetxeek, teknikariak prestakuntza eta teknifikazio jardueretan parte har dezaten bultzatu beharko dute. Gainera, kirol jardunean euskararen erabilera sustatze aldera, ikastetxeetako agenteak elebidunak izan daitezten saiatuko dira.

Ikastetxeek konpromisoa hartzen dute Udalak eskola



Udal eta ikastetxeetako Guraso Elkartetako ordezkariak hitzarmena sinatu ostean.

kirola kudeatzeko sortu duen egitura lokalean parte hartuko. Horrez gain, ikasturte bakoitzean jardura egitarau bat antolatuko dute, Foru Aldundiak ezarritako programaren ildoan arabera.

Era berean, kirol elkarteetako lankidetzari erraztu beharko dute, haurren kirol jarduna bultzatzeko, bai eskola garaian baita eskola garaitik kanpo ere.

Udalak konpromisoa hartzen du ikastetxeko kudeaketarako egitura lokala sortzeko, eta honen sorkuntza, garapena eta kontsolidazioa gainbegiratu dute. Halaber, udalaren instalazioak erabili ahal izango dira.

Gainera, Lasarte-Oriako ikastetxeek adostutako irizpideen arabera, jardura aurrera eramateko ikastetxeak diruz lagunduko ditu.

SuBerri akordeoi orkestra eta Aita Donostiaren emanaldi paregabea



SuBerri akordeoi taldeak kontzertua eskaini zuen larunbata arratsaldean San Pedro elizan, bertara gerturatu zirenen gozamenerako.

Nahiz eta taldeko bazkideei eskerrak emateko emanaldia izan, hainbat izan ziren parrokiara hurbildu ziren herritarrak.

Elias Goikuriak zuzendutako musikarietara batera Donostiako Aita Donostia

koruko kideak aritu ziren emanaldi bikaina eskainiz.

Behin baino gehiagotan aritu dira bi talde horiek elkarrekin, baina larunbatekoa izan zen Lasarte-Orian batera aritu ziren lehenengo aldia.

Emanaldi berezi honetan, hainbat izan ziren bi taldeek eskainitako doinuak, hala nola, Eduardo Mocooren Meza Pastoral edo Dantzaldia.

“Egun ezin da herri-bertsolaria izan”

Bertsoak, kontuak eta txismek izango dira Arrieskalletako bertso-saioan

Azaroaren 6an, 21:00etatik aurrera, Earra! Bertso eskolak eta Arrieskalleta elkarteak antolatuta bertso-afaria izango da elkartearen. Belaunaldi ezberdinetako bertsolariak izango dira bertan, batetik Ane Labaka eta bestetik Patxi Etxeberria. Hauek zirikatzeko berriz, Mailu Arruti arituko da kontu eta zurrumurruak dituzten bakarrizketak egiten.

Etxeko jendearekin antolatu nahi izan dute aurtien Arrieskalleta elkarteak eta Earra! Bertso eskolako kideek bertso-afaria. Horretarako, Ane Labaka eta Patxi Etxeberria bertsolariak aukeratu dituzte. Lasarte-Oriako bertso munduaren iragana eta etorkizunaren adibide.

Baina bertsolariak ez dira bertso-afarian bakarrik izango. Mailu Arrutik kontu eta txismek oinarri hartuta, bakarrizketak eskainiko ditu, bertsolariei gaia iradoki edo hauei ziria saritzeko asmoz.

Hau aitzaki Patxi Etxeberria bertsolariarekin izan gara eta hainbat gai jorratu ditugu.

Gaizki ikusia

Patxi Etxeberria oso txikitik, hasi zen bertsoan, “ni txikitatik konturatzen naiz, horrelako zomorro bat dudala. Oso umetan gogoratzen naiz, Erniora joateko ohitura zegoela. Gazte jendea joaten zen soinuarekin eta kuadrillan. Gogoratzen naiz gaua zela eta gurera gerturatu zirela, etxeko norbaitek joan behar zuelako eta nik bertso bat bota nahi nuela, baina gure aita eta amak zirenak “ixildu” esaten zidaten. Ordurako hasita nongoen, banuen grina edo gogoia, hor jaiota zegoen”.

Gurasoen jarrera ere azaldu digu. Izan ere, gaur ez bezala, bertsoan ibiltzea gaizki ikusia baitzegoen. “Lehen ez zegoen baimenik. Fama txarra genuen bertsolariek. Orion behintzat lotsagarria zen bertsoan ibiltzea, mozkorrek egiten zuten bakarrik. Noiz baino noiz mozkor ibiliko ginen, baina askotan ez”.

Guda osteko garaietan ere, zailtasunak izan zituztela adierazi digu, “Sasoira etorri ginen gerra ondorengo urteak ziren. Urte txar eta gogor haiek! Eta ez zegoen edonon abesterik, nonbait baten bat zain zenuen eta deskuidatzen bazinen zas. Hori ere ez genuen nahi. Komerik izan genituen”.

Txapelketak

Hala ere, guztia gairitu eta txapelketetan parte hartzen hasi zen Etxeberria.

“Txapelketak ez dakit zein urtetan hasi ginen. Villafrancan eta beste lekuetan ere egiten ziren txapelketak ere. Ezer asko

egin ez, baina parte hartu bai. Loiola Herri Irratian Joxe Mari Iriondo ibili zen eta ez dakit beste nork “Campeonato de bersolaris noveles” antolatu zuten 1960 inguru horretan, bertsolari gazteentzat. Hara joan, Loiolara eta han kantatzen genuen. Gero Gipuzkoa osoak ematen zituen bozkak eta hor ibili ginen. Nik hirutan edo parte hartuko nuen”.

Euskadiko Txapelketei dagokionez, “67koan edo lehenago zen Uztapidek esan zidan, “Patxi aurtien hautan ibili haiz, baina ez haiz sartu. Iparraldetik bat ere ekarri nahi ginin eta Txapun jarri ginun. Hortze geratu haiz izkin izkinean baino”.

Bertso eskolak

Bere garaian bertso eskolarik ez zegoela eta bertsoei “lagundu zezakeenik edo mesederik egingo zienik” sinesten ez zuela ere onartu du. “Nik buruan eta bihotzean nuen bertsolariak berezkoa zuela eta berez etortzen zela. Nik esan izan det Imanol Lazkano eta Amurizarekin bilera batean, Elgoibar aldean edo, bertso eskoletako gaia ateratzean “ixilik egon zai-



Patxi Etxeberriarekin solasean izan gara, bertso-afaria aitzaki hartuta.

tez”. Sarasua eta horiek atera zirenean, Arantzazu Loidi eta... Imanolek orduan esan zidan “hauek horrela baldin badatoz, besteak bastoia hartu eta paseatzera joateko moduan gaittun”. Beti sinesten dut eta hala izan da”.

Baina bertso eskolan hasi zen eta lagundu egiten duela deritzo orain, “Pablo Suberbiolak eta bultzatuta hasi nintzen, “baina nik zer egin behar det bertan?” “Ze egin! guri asko erakutsi” esan zidan. Hasi nintzen eta orain, zori txarrez ez daukat asko joaterik eta pena dut. Hamar edo hamabi urte

dira. Ba al dakizu zein ondo pasatzen dudun? Halako lagunak eta gazteak bertsoan ikustea. Ez da hori bakarrik, neroni ere asko lagundu didala ikusi det. Gauza polita da eta aldi berean asko ikasten duzu. Gazteak entzuten dituzu eta gazteek asko dakite. Eta zuri ere zerbait geratzen zaizu. Lagundu egiten du. Eta nik ez nuen sinesten.”

Honetaz gain, “nik orain 85 urte ditut eta bertsolaritzarekiko ilusio handia dut. Hau marka. Hori nolabait odolean dago sartua eta horrek hor segitzen du,” onartu du.

Berezkotasuna galtzeaz

Bestalde, gaurko bertsolaritzak zerbait galtzeaz duela azpimarratu du, “bertsolaritzak badu bere berezotasun bat. Bazkari batera joan eta bertsolaria sasoi-ko badago di-da hasten da. Orain oso nekez hasten dira, orain behar dute gai bat jartzea. Berezkotasun hori atera behar da. Baina orain bertsokera horrek ez du luzitzen. Orain dena buelta emanda dago, bertsoan eta txapelketan egon nahi duenak, horri jarraitu behar dio eta bestelako bertsokera, bertso luzek, etab. abestu behar ditu”.

Eta honen harira, “gaur herri bertsolariak izateko aukerarik ez dute. Hauek igual-igual egingo dute bertsoan edozein lekutan, baina aukerarik ez dute. Gu taberna batera joaten ginen eta bertsoan ibiltzen ginen, orain ez dago aukerarik, taberna batera zoaz eta musika dela edo, ez daukazu bertan egiterik. Areto zehatz batzuk dituzu edo txapelketak edo afari konkretu batzuk eta milaka gauza prestatuko dituzte. Baina hartarako prestatzen dira. Lehen edozein lekura joaten ginen gu, edozein ermita ondora,” aipatzen du.

Etxeberria adierazi digunez, “orain asko ikasten dute eta liburuak irakurtzen dituzte eta gauzei berrogei mila buelta ematen dizkiete. Nik ez dut inoiz horrelakorik egin. Nik ez nuen pentsatzen horrek balioko zuenik, baina hala da. Orduan Basarri zen eskolatu zana, etxean lan pila egin eta nabaritu egin zen, han, hor, hemen eta txapelketetan”.

Bertso-afaria

Hurrengo ostiralean, 21:30etik aurrera, Arrieskalletan izango den bertso-afaria ere hizpide izan dugu. “Norbaite burutazioa izan da. Esan zidatenean, “zer egingo det nik Ane Labakarekin bertsoan?” galdetu nien eta haiek “saio earra egin!” esan zidaten. Herrian zaude, herrian bizi zara eta herriko jendea duzu eta denak ezagutzen zaituzte. Ane eta denak lagunak dauzkate eta asko maite dituzte. Alde batetik pena ematen dizu ez joatea edo ezetz esatea ere,” onartu du.

Eta ahal duena egingo duela azpimarratu du, “ez dakigu zer egingo den, ahal duguna egingo dugu eta gehiago ez dago egiterik. Horrela gara, nire izakera horrelako da”.

Honetara joan nahi dutenek azkar ibili beharko dute, txartel gutxi batzuk geratzen baitira Jalgi Kafe-antzoan. Hauek 20 eurotan daude salgai.

Ane Labaka laugarren Erreterian

Ane Labakak Gipuzkoako txapelketako final laurdena jokatu zuen lehengo astean Erreterian.

Beñat Gaztelumendi, Jon Martin, Iñigo Mantzizidor “Mantxi”, Amaia Iturriotz eta Iñaki Gurrutxaga izan zituen aurrez aurre.

Saioa Beñat Gaztelumendik irabazi zuen, 516 punturakin eta Tolosako finalaurrerako zuzeneko txartela eskuratu zuen.

Ane Labakak berriz, 476 puntu lortu zituen eta laugarren sailkatu zen.

Lasarte-Oriako bertsolaria fin ibili zen zortziko txikian, baita bakarkako lanean ere. Hamarreko txikian berriz, kale egin zuen.

Iguaran bigarren

Bestalde, larunbatean Earra!



Lasarte-Oriako bertsolari gaztea sailkapeneko 7. postuan dago, Iguaran laugarren eta Azpiroz hamargarren, bi saioetako txapelkunak bane.

Fase honetan, saioetako irabazleez gain, hamahiru bertsolarik egingo dute aurrera.

Bertsolari onak

Patxi Etxeberria ere izan zituen Earra! bertso eskolako kide gazte hauei buruzko hitzak, “hirurak oso ondo egiten dute bertsoan, Ane oso ona, Azpiroz ere. Beñat nik esango nuke ateraldiak dituela, baina hauei baino gehiago kostatzen zaio bertsoan egitea. Ez dakit ba, berak gehiago pentsatzen duelako edo zailtasun gehiago dituela iruditzen zait. Hala ere, lehengoan izugarrizko saioa egin zuela entzun dut”.

Bertso eskolako Asier Azpiroz eta Beñat Iguaran lehiatu ziren lehen final laurdenean eta Agin Laburu eta Jexux Mari Irazurekin nor baino nor izan ziren.

Laburu izan zen lehena, 516 punturakin eta bigarren, Beñat Iguaran 491 puntu eskuratu. Asier Azpirozek aldiz, 470,5 puntu eskuratu zituen.

Falta diren hiru final laurdenetako emaitzen zain geratzen dira hirurak. Asteburuan izan ziren final laurdenetako bi saioak kontuan izanik

LABURRAK.-

Denboraldiko lehen garaipena erdietsi zuen Ostadar Antonio Aroztegiak Villabonan

Laugarren jardunaldian erdietsi du areto-futbol liga Nazionalako 3. mailan aritzen den Ostadar Antonio Aroztegia taldeak denboraldiko lehen garaipena. Villabonako Egintzaren aurka neurtu zituen indarrak, eta garaipen argia erdietsi zuen, 0-5.

Bestalde, Gipuzkoako 2. mailako Cecilia Fruta Denda Kebab Lasarte Ostadar taldeak kategoriako lider izaten jarraitzen du, Laskorain KE taldeari 0-4 irabazi ostean. ISU Leihoak taldeak berriz, galdu egin zuen Lauburu Ibarraren aurka, 4-3. Hiru partidu jokatu ditu Gipuzkoako 1go mailan, eta beste hainbeste puntu ditu sailkapenean. Azkenik, jubenil mailako Lasarte Kafe Bar Ostadar taldeak galdu egin zuen Goierriren aurka, 4-7. Jokatutako bi norgehiagokak galdu ditu Mikel Escribano eta Imanol Azkuek zuzendutako taldeak.

Gaur egingo dute Lasarte-Oriako San Silvestre lasterketa antolatzeke lehenengo bilera, Kiroldegian

Hainbat herritan ospatzen da San Silvestre lasterketa herrikoia abenduaren 31n, baina Lasarte-Oria oraingo ez. Hori dela eta, herriko korrikalari talde bat proba hori antolatzeke lanetan hasi da, eta gaur arratsaldean egingo dute lehenengo bilera, kiroldegian. Prestaketa prozesuan parte hartu nahi duen edonori luzatzen diote deialdia bileraren antolatzaileek; 18:55ean geratu dira kiroldegiko ateak.

LOKEko judokak primeran Asturias eta Salamancan

Bigarren konpetizio asteburua izan zen aurrekoa LOKEko judoka senior eta juniorrentzat, eta emaitza bikainak erdietsi zituzten. Seniorrak Asturiasen aritu ziren larunbatean, Puerta txapelketan, eta zenbait domina ekarri zituzten Lasarte-Oriara. Zilarrezkoa kolkoratu zuen Fermin Baldak, eta brontzezkoak Asier Sagastik, Ion Arroyok eta Josu Olmosek.



Bien bitartean, Haritz Urdangarin eta Asier Zubizarreta bosgarren geratu ziren. "Lan ona egin zuten denek, kalitate handiko borroka izan ziren", aipatu du Gorka Aristegi prestatzaileak.

Igandean berriz, juniorren txanda izan zen. Salamancara bidaiatu zuten, bertan jokatu zen Espainiako kopan parte hartzeko. Fermin Balda, Ion Arroyo eta Haritz Urdangarin aritu ziren tatamian. Baldak asteburuko bigarren domina eskuratu zuen, brontzezkoa kasu horretan. Urdangarin eta Arroyok 7. postuan amaitu zuten txapelketa, lau borrokalditan aritu ostean. "Esperientzia hartzeko asteburu bikaina izan da, 44 borrokalditan aritu dira senior zein jubenilak eta lan ona egin dute guztiek", nabarmendu du Aristegik.

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Larunbata 31

Michelin, 10:30ean

Ostadar SKT - Euskalduna SD
Infantilen Ohorezko maila,
5. jardunaldia.

Michelin, 12:00etan

Ostadar SKT - Antiguoko KE
Kadeteen Ohorezko maila,
7. jardunaldia.

Michelin, 16:10ean

Ostadar SKT - Danena KE
Kadeteen I. maila,
7. jardunaldia.

Orio, Mendibeltz, 17:30ean

Getariako Keta FT - Ostadar SKT
Ohorezko Erregionalak,
8. jardunaldia.

Donostia, Herrera, 17:30ean

Sporting de Herrera - Ostadar SKT
Jubenil I. maila,
7. jardunaldia.

Michelin, 17:40ean

Ostadar SKT - Antigua Luberrri KE
Erregionalen I. maila,
7. jardunaldia.

Oretea, Fanderia, 17:45ean

Touring KE - Ostadar SKT
Jubenil Ohorezko maila,
7. jardunaldia.

Azpeitia, Garmendipe, 18:00etan

Ikasberri KE - Texas Lasarteerra CD
Erregionalen I. maila,
7. jardunaldia.

Donostia, Rezola, 19:30ean

Antigua Luberrri KE - Ostadar SKT
Emakumeen Lurralde maila,
7. jardunaldia.



SASKIBALOIA.-

Lautik lau Partizipazio juniorrentzat

Ostadar SKTk 56-35 hartu zuen mendean Saskiaxular

Lau jardunaldi, lau garaipen. Ezin hobeto ekin diote denboraldiari Ostadar SKTko Partizipazio juniorrek. Kiroldegian eskuratu zuten 4. garaipena Saskiaxular taldea 56-35 mendean hartuz, iragan larunbatean. Bera Beraren aurka ariko dira bihar Donostian, 18:00etan.



Denboraldi hasiera bikaina egiten ari dira Endika Marrahi-entrenatutako neskek.

TXINTXARRI

Lehenengo laurdenetik erakutsi zuten Endika Marrahi-entrenatutako neskek zergatik dauden sailkapeneko lehenengo postuan. Defentsan fin ibili ziren, baloi guztiak borrokatzen, eta are finago erasoan. Baloia kantxako alde batetik bestera mugituz beti topatu zuten taldekideren bat jaurtiketa egiteko posizio onean. Gauzak horrela, berehala ihes egin zuten markagailuan 10 puntu baino gehiagoko aldea lortuz.

Saskiaxular taldekoen erreakzioa etorri zen bigarren. Zonakako defentsa egiten hasi ziren, etxekoei presio ona eginez; Marrahi-entrenatutako jokalariek ez zituzten hain erraz lortu saskiraketak. Defentsa horren aurrean kanpotik jaurtiketa gehiago egin zituzten Ostadarreko neskek, baina ez ziren oso fin ibili eta ezin

izan zuten markagailuko aldea handitu. Esan behar da defentsa lanetan ongi aritu zirela bigarren laurdenean, eta puntu asko sartu ez arren kontrari ez zituztela asko jaso.

Alor fisikoa, gakoa

Hirugarren laurdena bigarrenaren antzekoa izan zen, kanpoko taldeak zonakako defentsa mantendu zuen eta Ostadar azkar jokatzeko saiatu arren arazoak izan zituen saskiraketak lortzeko.

Laugarrenean aldiz, Ostadar SKT izan zen jaun eta jabe. Fisikoki hobeto iritsi ziren partiduen amaierara, aurre-denboraldiko lanaren ondorioz. Gauzak horrela, lehenengo laurdenean bezala jokatu zuten Endika Marrahi-entrenatutako neskek eta, orduan bai, markagailuan ihes egin.

Bukaeran, 56-35 etxeko taldearentzat eta beste bi puntu poltsikoan. Zortzi erdietsi dituzte lau jardunalditan, eta lider dira sailkapenean. Bera Beraren aurka ariko dira bihar Donostian, 18:00etan.

Asteburuko emaitzak

Saso berria espero ez bezala hasi arren, 3. probintzialeko senior mutilak bolada onean dira orain, azkenengo bi partiduak irabazi baitituzte. Joan den igandean 58-31 garaitu zuten Askatuak, kiroldegian.

Errendimenduko juniorrek berriz, denboraldiko lehen porrota jaso zuten Askatuak taldearen kantxan, 40-38. Azkenik, kadeteen Errendimendu eta Partizipazio kadeteek galdu egin zituzten euren neurketak, 79-60 Easoren aurka eta 33-52 Beasainen kontra hurrenez hurren.

DUATLOIA

Larunbata 31

Zubieta, 16:30ean

Zubietako mendi duatloiarren V. edizioa jokatu da. Lehen zatia korrika egin beharko dute, 5,6 kilometro osatuko dituzte. Ondoren, mendiko bizikleta hartu eta 14,4 km egingo dituzte. Hirugarren eta azken sektorean, berriro ere korrika egin beharko dute, 2,3 kilometroko ibilbidea osatuz.

ARETO-FUTBOLA

Ostirala 30

Michelingo kirol gunea, 19:45ean

Txindoki - El Punto

Michelingo kirol gunea, 20:45ean

Txoko - Reformas Lagunak

Kiroldegia, 20:55ean

ISU Leihoak - Irudek Barrantol
Gipuzkoako I. maila,
5. jardunaldia.

Larunbata 31

Michelingo kirol gunea, 9:15ean

Urdaneta HK - Ilargi

Michelingo kirol gunea, 10:15ean

Izkiña - Trumoi

Michelingo kirol gunea, 11:15ean

Kattagorri-Insauti - Indaux

Michelingo kirol gunea, 12:15ean

TSST - Viña del Mar

Anoeta, Abraham Olano, 12:30ean

Anoeta FT - Lasarte Kafe Bar
Gipuzkoako Jubenil maila,
3. jardunaldia.

Kiroldegia, 18:00etan

Ostadar Antonio - Soloarte FS
Nazional ligako 3. maila,
5. jardunaldia.

PILOTA

Larunbata 31

Azpeitiako Gurea pilotalekua, 16:00etan

Azkoitia - Intza KE

Gipuzkoako seniorren II. maila.

SASKIBALOIA

Larunbata 31

Kiroldegia, 16:00etan

Ostadar SKT - Askatuak
Errendimenduko kadeteak,
7. jardunaldia.

Donostia, Paco Yoldi kiroldegia, 18:00etan

Bera Bera Ulia - Ostadar SKT
Partizipazioko juniorrak,
5. jardunaldia.

Donostia, Altza, 20:00etan

Alde Zaharra - Ostadar SKT
3. maila probintziala, 5. jardunaldia

Igandea 1

Donostia, Paco Yoldi kiroldegia, 10:00etan

Askatuak - Ostadar SKT
Partizipazioko juniorrak,
5. jardunaldia.

IGERIKETA

Larunbata 31

Tolosa, Usabal kiroldegia, 16:00etan

Buruntzaldea IKTko igerilariak
Alebinen Liga hasiko dute.

— Agenda —

Larunbata, Manuel Lekuona, 20:00etan



Dantza eta poesia uztartuta

Lasarte-Oria dantzan XI-ko azken saioa izango da "Refugiada poetica" ikuskizuna. Claire Ducreaux-ek gidatuta, behartsu batek behin-behineko aterpea sortzen du parke batean, bi hesi haren ametsaren ateak dira, zubi bat itsasontzi bihurtzen da, eta eskultura bat haren bidai laguna izango da. Dantza, mimoa, clowna, antzerkia elkartzen dira ikuskizunean. Sarrera 5,50 euro.

Erakusketa

ANTONIO MERCERO GUNEA

Azaroaren 2tik 15era

Lan eta Lan antzerki taldearen 18. urteurrena ospatzeko atrezzo eta jantzi erakusketa izango da. Irekiera ekitaldia izango da, astelehenean 18:30ean eta olerki irakurketa egingo da.

Usurbil

Dantza

SUTEGI

Larunbata, 18:00etan

"Shabbick Labbick" hainbat herrialde-tako dantza eta mugimendu desberdin nahasten dituen ikuskizuna da, kolore eta erritmo ugari espazio berean elkartuz, esperientzia magikoa bilakatzea du helburu. Sarrera: alde aurretik 8 euro eta egunean bertan 10 euro.

Lasarte-Oria

Solasaldia

ELEBELTZ

Ostirala, 18:30ean

'Kortxoenea: iraultza sortzea delako' dokumenatalaren proiektzioa eta solasaldia.

Proiektzioa

MANUEL LEKUONA

Ostirala 19:30ean,

The Royal Ballet Royal Operan egindako Romeo eta Julieta balletaren proiektzioa. Kalitate handian grabatutako saioa da. Sarrerak aurrealmentan 7,50 euro egunean 9 euro.

Azoka

OKENDO PLAZA

Ostiraletik igandera,

Gastronomia eta artisautza azoka "Haiek bai urteak 1970 /80".

Musika

JALGI

Larunbata, 23:00etan

Makala Dj-en emanaldia izango da. Sarrera doan.

Zinea

MANUEL LEKUONA

Igandea, 17:00etan,

"Pinocho y su amiga Coco" animaziozko filma ikusi ahal izango da haurrentzako saioan. Sarrera 3,80 euro.

MANUEL LEKUONA

Igandea, 19:30ean,

"El desconocido" filma helduen zinema saioan. Luis Tosar da Dani de la Torre zuzendariaren lanean protagonista. Sarrera 5,50 euro.

Udazken Fest

ELEBELTZ

Larunbata,

12:00etan, poteoa Okendo plazatik Rezibatukadarekin.

14:00etan, bazkaria Elebeltzen. Txartelak Elurtza, Xiri, Ilargi eta Elebeltzen bertan eskuratu daitezke. Ondoren, bazkalostea gidatzeko, karaokea egingo da.

22:00etan, Kontzertuak: The Garax, Desegin, Txili Pipar eta DJ Zaballos.

Andoain

Musika

BASTERO

Larunbata, 22:30ean

Boiseko Eilen Jewell abeslariak 'Sundown Over Ghost Town, Miss Tess & The Talkbacks' diska aurkeztuko du. Bere musika estiloa countryaren baitan sailkatzen duten arren, bere doinuetan folk, rock edota blues-a ere nabaria dira. Sarrera 12 euro.



— Herritarren txokoa —

62an jaiotako enafaria

1962an jaiotako enafaria antolatuko da, azaroaren 14ean, Donostiako Kaskazuri jatetxean.

Menua 40 eurotakoa da eta Laboral Kutxako ES78 3035 0036 12 0361135678 kontu korrante zenbakian egin behar da diru sarrera.

Harremanetarako, 646 274 376, Beatriz.

63an jaiotako enafaria

Aurten ere 63an jaiotako enafaria antolatuko da. Azaroaren 21ean, 21:00etan, Goiegi Jatetxean egingo da afaria. Aurrez, Okendo plazan geratuko dira 20:00etan pote bat hartzeko.

Menua 36 eurotakoa da eta Laboral Kutxako ES13 3035 0036 150361135634 kontu korrante zenbakian egin behar da diru sarrera. Informazio gehiago, Agustin Markos, 600 799 772 edo J.F. Solano, 657 770 318.

55ean jaiotako enafaria

1955ean jaiotako enafaria antolatuko da azaroaren 21an. Informazio gehia-

go eskuratzeko deitu zenbaki hauetara Begoña 678 90 34 99, Mariano 658 70 64 73 edo Mariasun 627 70 12 41.

65ean jaiotako enafaria

1965ean jaiotako enafaria egitea pentsatu dugu. Hau azaroaren 28an izango litzateke gure lehenengo 50 urteak ospatzeko. Informazio gehiago eskuratzeko Olga 687 845 623 edo Idoia 653 712 373.

Errigorako saskiak

Errigorako eskaintzan 15 ekoizleren produktuak bildu dituzte 50 euroko saskian. Nafarroa hegoaldeko euskalgintzara bideratuko da jasotakoaren %25, Lodosa eta Vianako ikastolei, Erriberako AEK eta D eredia Nafarroa osora hedatzeko ekimenetara hain zuzen ere. Saskien eskaera egiteko aukera dago Ttakuneko bulegoan, Landaberri DBH institutoan, Landaberri Garaikoetxean, Landaberri Zubietan, Michelin lantegian, Muntteri AEKn eta lametza lantegian azaroaren 8a bitartean. Saskiak banatuko dira azaroko azken astean Goikale 8 zenbakiko lokalean.

Eskutitza

Hassanna Aalia sahararren alde udal adierazpena

Lasarte-Oriako Bozeramailen Batzarrak, Hassanna Aaliari babes politikoa ukatzearen inguruan (eta Estatu espainiarra uzteko 15 eguneko epeari buruz), aho batez erabaki du:

1. Hassanna Aaliari eta bere familiari sostengua eta elkartasuna adieraztea.

2. Arbuia egiten du Hassanna Aalia giza eskubideen aldeko saharar ekintzailea urriaren 6an Burgosen atxilotu izana eta ondoren zabaldu den prozedura.

3. Egiaztatzen ba da Auzitegi Nazionalak kanporatzeko aginduari buruz emandako kautelazko eteteak Hassanna Aalia babesten duela, ez litzaioke bere kanporatzeari ekin behar izango. Une honetan, Hassanna Auzitegi Nazionalak bere asilo-eskubideari buruz eman beharreko behin betiko ebazpenaren zain dago.

4. Barne Ministerioari eskatzen dio Hassanna Aaliak asilo politikorako duen eskubidea aitortu dezala, bere erabakia berriz aztertuz, nazioarteko babes-eskaera 12/2009 Legeak ezarritakoarekin bat onartuta. Izan ere, bere herrialdera itzuliz gero Marokoko agintari okupatzaileek gogor zigortuko dute eta ezin izango da presondegitik irten bizitza osoan, politikoki aktiboa eta nazioartean ezaguna izateagatik, saharar herriaren autodeterminazio-eskubi-

dearen alde modu baketsuan borrokatzea-gatik.

5. Marokoko Gobernu Mendebaldeko Saharan eragiten ari den Giza Eskubideen bortxaketa areagotzen ari dela eta gure ardura azaltzea. Errepresio egoera honi amaiera ematea eta Saharako preso politikoko guztiak aske uztea.

6. Berretsi egiten ditu bere konpromisoa Saharar Herriarekin eta bere babes ekimen politikoa eta sozialen alde, konponbide justua eta behin betikoa lortzera bideratuta, NBEk adostutako Autodeterminazio Erreferenduma ospatzea eskatuz; hau baita konfliktu luze hau lurraldearentzat modu iraunkor, baketsu eta egonkorrean konpontzeko era bakarra.

7. Akordio hauek erakunde hauetara bidaltzea: a. Espainiako Errege-etxera b. Espainiako Gobernu buruari c. Kanpo harremanetarako espainiar ministroari. d. Espainiako barne ministroari. e. Nazio Batuen aurreko Espainiako misio iraunkorrari. f. ACNUR-en ordezkartza Espainian. g. Europako parlamentuko presidenteari. h. Europar kontseiluko presidenteari. i. Marokoko Espainian duen enbaxadara.

Lasarte-Oriako udala

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858 txintzarri@txintzarri.info

Josu Elespe Eraikiz dokumentuaren egilea

“Autokritika egitea beharrezkoa da”

Eraikiz dokumentua aurkeztu zuten biktima ezberdinen senideek parlamentuan. Honetan oinarri etikoetara jo eta biolentzia guztiak gaitzesteaz gain, elkarbizitzarako oinarritzko baloreak eta prozesurako ekarpenak jasotzen dira. Dokumentuaren egileetako bat da Josu Elespe, ETAK hildako Froilan Elespe herriko zinegotzi sozialistaren semea.

MAIDER AZURMENDI

Euren mina gaindituta, ideologia ezberdineko jendea ados jartzea lortu duela azpimarratzen du Elespe “elkarbizitza posible dela sinisten dugu, horretarako gizarateak urrats sendoak eman behar ditu”.

14 urte dira ETAK aita hil zuela. Pertsonalki, familiar... zein prozesu egin duzue?

Prozesua oso luzea izan da. Egigurenek esan zidan orduan 10 bat urteko dolua pasa beharko genuela, ezberdina zela gaixotasunak jota hildako senidearengatik egiten zen prozesua.

Gurea ordea, hasieran erokeria iruditu zitzaidan arren, urte asko behar izan dira pixkanaka-pixkanaka gainditu ahal izateko. Egia esan, gainditu hitza erabiltzen da baina azken batean, ez da halako gertaera gogorra gainditzen. Ikasi egiten da horrekin bizitzen. Hala ere, esan behar dut nire aitaren hilketak ez duela oztopatu egun bizitza zorientsu eta orekatu bat edukitzea.

Donostiara joateak lagundu zuen. Zein zentzutan?

Asko lagundu zigun herritik aldenteak. Azkenean hemen asko ziren oroitzapenak eta hasieran batez ere, oso gogorra zen. Giroa aldatzeak ere asko lagundu zuen... Niretzako berriz zerotik hastea ekarri zuen. Aitortu behar dut herritar askoren babesa eta elkartasuna sentitu



genuela baina familiarentzat ona izan zen aldaketa momentu hartan.

Hilketa gertatu zenean zein jarrera ikusi zenituen inguruan?

Herritarren babesa sentitu genuen baina alderdi politikoaren aldetik, hainbatek huts egin zuten. Beste garai bat zen. Nire aitak abizituen, baita gu ere, ezker abertzalearen ideekin bat egiten zuten lagunak eta hauen aldetik gerturatzeko ahalegina ikusi genuen arren, lotsagatik edo, ez ziren inoiz ausartu dolu hitzak esatera.

Garai hartan Euskal Herritarrok-eko zinegotzi bat bazegoen aitarekin soldaduska egindakoa eta badakigu, pertsonalki harreman ona zutela. Hark ere ez zigun ezer esan.

Ezker abertzalearen garai horretako jarrerak ez dauka zerikusirik oraingoarekin. Orduan, oraingo jarrera agertuko zutela pentsaezina zen. Hala ere, bere adierazpenak entzunda, beti iruditzen zait esku freno botata dutela, ez dute garai bateko ekintzez hitz egiten eta ez dute egindakoz baloraziorik egiten.

ETAK egin zuena ez dute baloratzen. Arazo handi bat dute presoekin eta hori konpondu behar dute.

Zer uste duzue egin behar dela presoekin?

Nire iritziz, presoak gerturatu eta larriki gaixo daudenak aske utzi beharko liriteke. Hala ere, ezker abertzaleak aitortu behar du bere ardura ETAREN ekintzetan, izan ere, ideario politiko horrek bultzatu zuen jende bat armak hartzera, euren aberria askatzeko.

Nanclareseko prozesuan dauden presoen bidea hartu beharko lukete preso guztiek. Nire ustez askoz gehiagok ez dute pausoa eman beldurra eta ondorioengatik kezkatuta. Autokritika egin dute niretzako presoak dira, barkamena eskatu dute eta entzun

nahi izan dituztenekin elkarrizketatu dira. Niretzako Nanclareseko presoak elkarbizitzaren alde egiten ari dira eta besteek ez dute aurrera egiten.

ETAKo kide ohi batekin elkarrizketatu zinen. Nolako esperientzia izan zen?

Esan behar dut hasiera batean, elkarrizketak martxan jarri zituztenean, ez nintzela animatu. Ez nuen nire burua hor ikusten. Baina beste biktima baten senideak esan zidan erreparazio pertsonalerako oso baliagarria gertatu zitzaioela. Horrela joan nintzen Nanclaresera, kuriositateak bultzatuta. Adituek prestatu zituzten elkarrizketak. Denbora guztian, bitartekari bat gurekin egon zen.

Elkarbizitzarako behar duguna gertatu zen elkarrizketa hartan. Presoak autokritika egin eta hiltzea gaizki egon zela aitortu zidan. Nire aldetik, guri aitaren hilketak eragin zigun mina azaltzen saiatu nintzen. Egiaren eraikuntzan, ez da ezkutatu behar hiltzea gaizki egon zela, alde guztientzat, eta hilketa horiek ezin direla ustezko gatazka baten barruan ‘ezkutatu’.

Gizarte bezala autokritika egitea beharrezkoa da. Nik neuk egin dut. Nire aita alderdi sozialistan zen militante baina garai hartan, ni oso eroso bizi nintzen. Ez nintzen gertatzen zenaren aurrean asalatu. Akzioan edo omisioan gehiengo batek du erru puntu bat. Askotan pentsatu dut atentatu garai gordin haieran, euskal gizarateak ETARI esan izan balio gaizki zegoela egiten ari zena, ETA lehenago desageratuko zela. Elkarte gutxi batzuek kenduta, ezer gutxi mobilizatu zen gizaratea.

Horren barruan dokumentuan esan bezala, eragile guztiak kontutan hartuta, alderdi politikoak, komunikabideak, gizaratea. Hedabideen kasuan, batzuen ildo editorialak hilketak justifikatu zituzten eta beste batzuek biktimen erabilera erori ziren.

Eraikiz dokumentua zeinu ezberdinetako biktimen familiek egin duzue. Nola hasi zineten elkartzen?

Eskoletan Adi-Adian programaren bidez hitzaldiak ematen hasi ginen. Hor ezagutu ginen ETA, GAL, Frankismo zein polizia abusuek eragindako biktimen senideak. Jendeak pentsatzen duena baino errazagoa izan zen dokumentura iristeko egindakoa bidea. Guk gure min eta sufrimenduak gaindituta lanketa egiteko gai izan bagara zergatik alderdiak, gizaratea ez?

Urte bete inguru daramagu elkartzen eta idatzia adostera-koan ez ditugu diferentzia asko izan. Bi oinarri barne hartzen ditu Eraikiz dokumentuak; batek biolentziaren deslejitimazioa eta bestetik biktima guztien errekonozimenduaren beharra. Gure artean ideologia ezberdinak daude baina ados gaude esateko, biolentzia gaizki egon zela.

Alderdiei eskaera zuzena egin zenieten parlamentuan...

Alderdiak badirudi ataskatu egin direla elkarbizitza sustatzeko ekimenetan. Bakoitzak bere interesak agertzen ditu eta azkenean, ez da ezer egiten. Erantzun sendoagoa izan behar dute eta elkarlanerako behingoz minimo batzuek adostu. Esertzea nahi dugu eta guk demostratu dugu, ideia politikoaren gainetik, biolentzia guztiak gaitzetsi daitezkeela eta gizaratean dagoen haustura hori gainditu edo berreraikitzekeko urratsak behingoz eman.

Dokumentuan argiak izan gara, biolentzia gaizki egon da. Oinarritzko da denek aitortzea iraganeko ekintza horiek guztiak, gaizki egon zirela, ETA, GAL...

Alderdien aldetik zein erantzun jaso duzue?

Espero genuen erantzuna izan du planteamenduak. Denek adostasun altua adierazi zuten dokumentuan jasotakoarekin, agian Sortuko kidea izan zen gehien neurtu zituena hitzak.

Estereotipoez hitz egiten duzue dokumentuan. Zeintzuk dira horiek?

Biktimak, berez hitza ez zait gustatzen, baina argi geratu behar da pluralak garela. Badi-rudi denek bat egin behar dugula AVTK ematen duen irudi edo iritziarekin eta ez da horrela. Ideologikoki aniztasuna dago eta askok ez dugu nahi diskurtso politikoetan hain presente egon. Behin Jaime Mayor Orejak esan zuen biktimek beti zutela arrazoiak eta hori ez da horrela. Pertsona arruntak gara eta kasu batzuetan, batez ere mina eta mendeku nahia dagoenean, ez dago arrazoinamendu logikorik...

Non esango zenuke gaudela elkarbizitzarako?

Hastapenean. Politikoek ez dute urrats sendorik ematen eta gizaratean, jendea ez dago oraindik autokritika egiteko prest. Herritarrek nahikoa dute hilabete amaierara iristearrekin. Elkarbizitza lantzeko momentua ez da iristen, hauteskunde

kanpainak direla, arazo ekonomikoak...

Pandoraren kutxa zabaldu behar da eta gertaerak izan ziren bezala aztertu eta baloratu. Justiziak guztientzat berdina izan behar du. Bestela azken urteetan gertatu bezala, maila ezberdinetako biktimak sortzen dira eta horrek ez du elkarbizitzan laguntzen.

Gure ustez denek dugu erruaren parte bat. Alderdi batzuek ez zuten ez ETAK ez GAL-ek egiten zutena gaitzetsi beste batzuek biktimen erabilera politikoa egiten zuten... Egia zein den azaleratu behar da eta historia hori zuhurtasunez erai-ki eta kontatu berriz gerta ez dadin. Guk herriz herri zabaldu nahi dugu gure testua.

Elkarbizitza posible da?

Bai, gu gara horren adibide. Bakoitzaren minaren gainetik elkartu eta oinarritzko batzuek onartzea lortu dugu. Hori gizarateko esparru guztietara eraman behar da.

Gizaratean aldaketa eman-go da belaunaldi berrien eraginez, azken hauek biolentziarik gabeko gizaratea ezagutuko baitute.

Senti daitezela, euskal herritar, espainiar, europar edo dena delakoa eta horrek ez baldintzatzea euren eguneroko bizitza.

Nanclareseko elkarrizketa, hitzaldiak eskoletan, Eraikiz... Behar pertsonala da?

Aita zinegotzi zela, ez nintzen kontziente gertatzen zenaz. Ez nintzen gazte aktiboak. Aitarena gertatu zenean, konturatu nintzen ETAREN amaierako prozesuan ahotsa izan behar genuela baina ez zenbait elkarteren mezuan sartuta. Pili Zabala ezagutzea, Paredesen anaia... oso aberasgarria izan zen. Beraiekin komunean nuen guztiaz jabetu eta oinarritzko ideia horren alde egitera bultzatu nuen nire burua.

Aitak nola ikusiko luke?

Nanclaresera joan nintzenean oso presente izan nuen. Zer pentsatuko zuen berak? Ondo ikusiko zuen? Errespetua oinarritzko zen berarentzat eta une zailetan ere inoiz ez zion utzi ezker abertzaleko zinegotziekin hitz egiteari. Harreman pertsonalak gailentzen zituen. Egiten ari naizenarekin harro egongo zela uste dut.

Biktimen ahazturari dago-kionean, Lasarte-Oriako PSE-EEk ez du ahaztu nire aita, babestuta sentitu gara beti, ez dugu sentitzen beste senideek sentitzen duten utzikeria. Horretan zortea izan dugu.